



**2010EKO ABENDUAREN 15EKO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko abenduaren hamabostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barre-ras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2010eko azaroaren 17an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2010eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 15 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA HEMERETZI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA LAU EURO eta ZENTIMO BAT (79.764,01 €)ekoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Go-bernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 10-11-007 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2010eko azaroaren 20tik, bere bo-rondatez.
- 10-11-008 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea astean 2 orduz. Onuradunaren ekar-pena zerbitzu kostuaren %24 izango da.
- 10-11-005 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2010eko abenduaren 3an heriotza-gatik.

**Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**

- 175 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako laguntzatik baja ematea abendutik, etxebizitza gastuetarako prestazio osagarriekin ez baeragarria izateagatik.

Telealarma Zerbitzua.-

- 10-12-010 zbk.dun esped.: telealarman baja ematea 2010eko azaroaren 9an egoitzan sartzeagatik.

Esku-hartze familiarra.-

- 10-15-001 zbk.dun esped.: urtebeteko iraupeneko esku-hartze familiarra ematen hastea, urteko gorabeherako kostua 4.710,84 € izango delarik.

Entitateei dirulaguntzak.-

2010 urtean honako dirulaguntzak ematea:

<u>Entitatea</u>	<u>Zenbatekoa</u>
ODOL EMAILEAK	1.265 €
GURUTZE GORRIA	3.510 €
GIZAKIA HELBURU	1.115 €

Orobione erretiratu eta pentsiodunen elkarteari dirulaguntza.-

Orobione erretiratu eta pentsiodunen elkarteari zazpi mila bostehun eta hogeita hamasei (7.536 €) euroko dirulaguntza ematea 2010 urteko ekintzen garapenarengatik eta ehun eta berrogeita hamar (150 €) euro podologoaren besaulkiarentzako.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara Batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobenu Batzarrak honako erabakia hartzen du: 2009-2010 ikasturtean euskara eskoletara joan diren herritarrei dirulaguntza ematea, horretarako dauden arauak jarraiki. Guztira 21 lagun dira proposamen orriari erantsitako orrietan ikus daitekeen modura eta guztira lau mila zortziehun eta berrogeita hamabi euro eta berrogeita hamahiru zentimo (4.852,53 €) emango zaizkie.

V.- KULTURA TALDEEI DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordearen proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak 2010. urtean egindako jarduerengatik Lazkaoko kultura taldeei guztira HOGEITA HIRU MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI EUROKO (23.259 €) dirulaguntza ematea erabakitzen du. Dirulaguntzen banaketa ondorengo da:

<u>Taldea</u>	<u>Zenbatekoa</u>
Beneditarren liburutegia	2.500,00 €
Kantaka	2.250,00 €
Xanbe	2.500,00 €
Monja Zistertarrea	295,00 €
Antzar Gazteak	900,00 €
Azki	264,00 €
Rwanda Taldea	560,00 €



Ansoategi	4.500,00 €
Zawopi	4.500,00 €
Lazkao Abesbatza	640,00 €
Jundajo Txaranga	2.000,00 €

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

